

4. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko apirilaren 19an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako Hiria eta udaletxea.

DATA: Bi mila eta zazpiko apirilaren hemeretzi.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro andrea
Jesús M^a García Garde jauna eta
Fco. Javier Pombo González jauna

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Alkate andrea.

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta jauna behin-behineko idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Lucia Querido Noceti zinegotziak bere ezin etorria justifikatzen du osasun arazoak ditu eta.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehenakariak, 9:05etan, bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako honako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldiko akta 3. 07-3-06 datkoa irakurri eta onartzea.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea erabaki du, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea.

2.- Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2007ko martxoaren 19an aurkeztutako proposamena, EJ 01, proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoa aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENENGOA.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat EJ 01 proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdietarako Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARRENA.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako kontusailean sartzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

3.- Oarsoaldeko Euskara Batzordearen 2007rako proiektua onartzea, eta gastua onartzea

2007ko martxoaren 7ko Euskarako Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak aurrez deliberaturik, eta bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENA.- 2007ko Oarsoaldeko Euskara Batzordeak proposaturiko proiektua onartzea eta baita gastuaren %25 ere Pasaiako Udalarari dagokiona berari aurre egiteko, 34.867,39 euroko kantitatez.

BIGARRENA.- Aipatu kantitatea indarreango udal aurrekontuko A-231/07 Baimenduaren kargura egingo da.

HIRUGARRENA.- Aipatu kantitatea Oarsoaldeko Euskararen Batzordeak KUTXAN irekia duen kontura transferituko da.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

4.- 14. ziurtapena "Pasai San Pedroko Torreatze Eremuaren berrurbanizazioa eta birmoldaketa".

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, hurrengo ziurtagiria ontzat ematea erabaki du:

Zk.: 14

Obra: "Pasai San Pedroko Torreatze Eremua berriz urbanizatzea eta birmoldatzea".

TRABAJOS ESPECIALES ZUT S.A. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendariak: ENDARA ING-ASOCIADOS S.L.

Zenbatekoa: HOGEITA HEMEZORTZI MILA EHUN ETA HAMASEI EURO ETA BOST ZENTIMO (38.116,05 euro).



Indarrean dagoen udal-aurrekontuko D-1251/06 xedatutik ordainduko da.

5.- "Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal-bulegoak egokitzeko proiektua" obraren 5. ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien adostasunez, ziurtagiri hau onartzea erabaki du:

Zk.: 5

Obra: "Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal-bulegoak egokitzeko proiektua".

GUIRES S.A. enpresa kontratistaren alde.

Obra-zuzendaria: JON CHAVARRI SARASUA.

Zenbatekoa: EHUN MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (100.648,99 euro).

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko 651/06 xedatutik ordainduko da.

6.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Estrella Seguros aseguru-etxeak aurkeztu duen ondare-erantzukizuneko erreklamazioa.

ESTRELLA SEGUROS aseguru-etxeak erreklamazioa aurkeztu zuen 2006ko urtarrilaren 19an Blas de Lezo kalean izandako gertaeren ondorioz; izan ere, udal honetako langileak gabonetako argiak kentzen ari zirela, SS-4505-AM matrikuladun garabi-kamioiak San Fermin tailerren kartela puskatu zuen. Eta tailer horrek Estrella Seguros etxearekin du egina asegurua.

Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak 2006ko martxoaren 15ean txostena egin zuen eta bertan aitortu egiten dute aipatutako kalte horiek sortu zituztela.

Kalteen konponketak 545,38 euroko gastua eragin zuen, horietatik ESTRELLA SEGUROS etxeak 395,38 euro ordaindu ditu, erantsita doan kitzatze-agiriaren arabera, industrien babes osoko aseguru-polizan ezarri zioten 150 euroko frankizia kendu ondoren.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzra ESTRELLA SEGUROS etxeak aurkeztu duen erreklamazioa, 545,38 eurokoa, eta honako ordainketa hauek egitea:

- a) ESTRELLA SEGUROS etxeari 395 euro, horretarako eman digun kontu zenbakian.
- b) San Fermin tailerren titular den Luis Benito Cabezon Mangadori 150 euro.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

B) Mutua General de Seguros aseguru-etxeak jarri duen ondare erantzukizuneko erreklamazioa.

MUTUA GENERAL DE SEGUROS etxeak, CARMEN CUEVAS SOREGUREN aseguru-hartzailearen izenean, erreklamazioa aurkeztu du 2004ko abuztuaren 26an ur-hodi orokor bat matxuratu eta horrek Gelasio Aranburu kaleko 3. Zk.an dauden lokaletan sortutako kalteengatik.

Kalte-ordaina 1.967,60 eurokoa da, eta horietatik CASER aseguru-etxeak 1.574,08 euro ordaindu ditu, frankiziari dagokion % 20 kendu ondoren; aseguru-etxe horrekin baitu udalak sinatua erantzukizun zibileko poliza.

Horiek horrela eta kontuan hartuta aipatu frankizia 393,52 eurokoa dela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- MUTUA GENERAL DE SEGUROS etxeari 393,52 euro ordaintzea, erantzukizun zibileko polizan ezarritako frankiziari dagozkionak, horretarako eman diguten kontu zenbakian, .

BIGARRENA.- Interesdunari erabaki hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

C) María Molinos Alfonso and.ak aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioa.

2006ko azaroaren 10ean M^a Molinos Alfonso and.ak ondare erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu zuen, 2006ko uztailaren 12an erori egin zela eta.

Espedientea bideratu da eta jasota dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen da udaleko langileen hutsegite baten ondorioz hainbat torloju geratu zirela aterata eta horiekin tratatuta erori zela erreklamazio-jartzailea.

Nolanahi ere, aurkeztu duen mediku-dokumentazioarekin ez da frogatzen izandako lesioen tamaina erreklamazio-jartzaileak eskatu duen zenbatekoarekin bat datorrenik. Zehazki, ez da egiaztatzen hainbat egunetan ezindua egon denik, eta erorketaren ondorioz dauzkan oinazeak ere ezarri beharreko baremoaren puntu batekin baloratu behar dira.

Bestalde, erreklamazio-jartzaileak betaurreko berriak erosi behar izan dituela-eta, horien ordainagiria aurkeztu du. Horri dagokionez, zenbateko hori ordainduko da, baldin eta erorketaren ondorioz hautsitako betaurrekoak ekartzen baditu eta betaurreko berriak lehengo kalitate eta ezaugarri berekoak direla justifikatzen badu.

Horiek horrela, eta kontuan hartuta urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren Eranskinean arautzen dena –horren bidez onartu zen ondare erantzukizunaren eta motordun ibilgailuen zirkulazioari dagokion aseguruaren Legearen Testu Eraberritua, erreklamazio-jartzailearen lesioak gutxi gorabehera baloratzeko ezarri beharrekoa–; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea neurri batean M^a Molinos Alfonso and.ak aurkeztutako erreklamazioa, Pasaiako Udala jotzen delako 2006ko uztailaren 12an erreklamazio-jartzailea Zumalakarregi kalean erori izanaren erantzule.

BIGARRENA.- Ordaindu beharreko kalte eta lesioak ondoren zehazten den moduan baloratzea:

- a) 58 egun ezinduta, 49,03 euro eguneko: 1.531'20 euro.
- b) Ondorioak: puntu bat, 530, 40 euro.
- c) Taxia: 5,45 euro.
- d) Betaurrekoak: 1.070 euro, honako baldintza hauekin:

d.1) Erreklamazio-jartzaileak udaletxera (Donibane, 118) eraman beharko ditu erorketan hautsi ziren betaurrekoak, HAMAR LANEGUNEKO epean, erabaki hau jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

d.2) Halaber, betaurreko berriak lehengo kalitate eta ezaugarri berekoak direla justifikatu beharko du, egoki iritzitako bitartekoen bidez.

Lehenengo baldintza betetzen ez badu, ez zaio kalte hori ordainduko. Bigarren baldintza betetzen ez badu, kalte horren ordainetan 400 euro emango zaizkio.

Beraz, jarritako baldintza guztiak betetzen baditu, guztira 3.137,05 euro dira ordaindu beharrekoak. Horietatik 3.000 euro Pasaiako Udalak ordainduko ditu eta gainerakoa AXA aseguru-etxeak.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau erreklamazio-jartzaileari eta Pasaiako Udalaren aseguru-etxeari jakinaraztea, eta honen aurka egiteko moduen berri ematea.

D) Begoña Salazar and.ak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa.

BEGOÑA SALAZAR QUEREJETA and.ak erreklamazioa aurkeztu du 2006ko irailaren 25ean 7583 BHX matrikuladun autoak Espinosa de los Monteros kaleko 1. Zk.aren parean zanga batean gurpilak sartu eta horrek autoari eragindako kalteengatik. Erreklamatzaren diren kalteen zenbatekoa 101,43 eurokoa da.

Espedientean jasota dauden aurrekari eta txostenak aztertu ondoren ohartu gara EUSKALTEL S.A. enpresak egin zuela erreklamazio-jartzaileak aipatutako zanga hori. Enpresa hori ez zen aritu udalak eskatuta, bere kontura baizik; beraz, herritarrei sortutako kalte guztien erantzulea da.

Are gehiago, azpiegiturak egiteko lizentzia EUSKALTEL enpresari eman zion dualak, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak 2006ko ekainaren 16an emandako ebazpenaren bitartez. Lizentzia horren baldintzen 6. puntuan honako hau jasotzen zen: “Obra-kontratatistak (...) zuloa estaltzeko burdin-xaflak eduki behar ditu; oinezkoak eta ibilgailuak espaloi eta galtzadatik normal ibil daitezten”, eta 9. puntuan, berriz, honako hau: “zangetan aurreko zatiak erabiltzeko egokitu behar dira, hurrengo zatia ireki baino lehen”.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea BEGOÑA SALAZAR QUEREJETAK aurkeztutako erreklamazioa.

BIGARRENA.- Erreklamazio-jartzaileari jakinaraztea zanga hori Euskaltel S.A. enpresak egin zuela, eta horren helbidea honako hau dela: teknologia-parkea, 809. Lokala, 48160, Derio-Bizkaia.

HIRUGARRENA.- Erreklamazio-jartzaileari erabaki hau jakinaraztea eta erantsita bidaltzea Euskaltel S.A.ri erabaki honetan aipatzen den azpiegiturak egiteko lizentzia eman zaiola jasotzen duen ebazpenaren kopia. Era berean, honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emango zaio.

E) Mikel Askasibar Bereziartuak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa.

Mikel Askasibar Bereziartua jn.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu du, 2005eko uztailaren 25ean bigantxa batek Donibane kaleko 25. zk.ko arkupetan aparkatuta zuen motozikleta jo zuelako.

Motozikleta espazio pribatu batean zegoen eta espazio hori babesteko hesirik jarri ez zenez, bigantxa bertara sartu eta erreklamaturako kalteak sortu zituen. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Mikel Askasibar Bereziartua jn.ak aurkeztutako erreklamazioa.

BIGARRENA.- Erreklamazio-jartzaileari motozikleta konpontzeak eragindako gastua ordaintzea, gehienez ere 128,99 euro, udalean konponketaren ordainagiria aurkezten duenean.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

7.- Zehapen espedientea: Hirigintzako Legezketasuna urratzeagatik Blas de Lezo, 10 kalean.

EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkate andreak 2006ko irailaren 20an ebazpena eman zuen, eta bertan Artxabal Promociones, S.L. ren aurka zehapen-espedienteari ekitea erabaki zuen, hain zuzen ere, Blas de Lezo 10. zenbakiko eraikinean berritze lanak eta igogailua jartzeko lanak lizentziarik gabe egiteagatik; hori guztia, Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudiaren 51.1 3) artikulua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 30/1992 Legearen 130. artikulua arabera.

BIGARRENA.- Inputatuak 2006ko urriaren 11n alegazio idatzia aurkeztu zuen, eta bertan adierazten du obrak legezatzeko dokumentazioa aipatutako ebazpena jaso baino lehen aurkeztu zuela.

FROGATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Frogatutzat jotzen da Artxabal Promociones, S.L. eraikinean hamabi etxebizitza berritzeko lanak eta igogailua jartzeko lanak lizentziarik gabe hasi zituela, beharrezkoa zen udal lizentzia eskuratu gabe.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Aipatutako gertaerak eta inputatuaren erantzukizuna egiaztatuak izan dira udal arkitektoak 2006ko ekainaren 19an egindako txostenaren bitartez.

BIGARRENA.- Alegazioak egiteko emandako epean aurkeztu zuen idatzian ez ditu gertaerak ukatu. Soilik adierazten du beharrezkoa zen dokumentazioa aurkeztu zuela zehapen-espeditentearen hasiera jakinarazi baino lehen, hau da urriaren 4an. Horrek, halere, ez du erantzukizuna gutxitzen; izan ere, obrak gelditzeko agindua ekainaren 19an eman zen.

HIRUGARRENA.- Espediente honi ekin ondoren, EAEn Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean sartu zen. Zehapen xedapenek atzeraeraginezko ondorioak izango dituzte ustezko arau-hauslearen aldekoak baldin badira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Administrazio-prozedura Erkidea arautzen duen 128.2 artikuluari jarraiki.

Araudi berriak larrizat jotzen ditu, besteak beste; *“Egiturazko elementuei eragiteagatik proiektu teknikoa behar dutelarik lizentziarik lortu ez duten obrak egitea”*. Ondorioz, espeditenteari ekiterakoan indarrean zegoen araudia aplikatuko dugu.

LAUGARRENA.- Eraikin guztiaren jabea, behe solairuko lokal batena izan ezik, Artxabal Promociones, S.L. da, bai eta obraren sustatzailea ere. Ondorioz, urraketa horren erantzulea bera izango litzateke, Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudiaren 51.1 3) artikulua.

BOSTGARRENA.- Arau-hauste hori arintzat jo behar da Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudiaren 54. artikulua araberak. Ez da 55.3 1) artikuluko inguruabar astungarririk egiaztatzen.

Ezar daitekeen isuna obraren kostuaren % 1etik 5era bitartekoa izan daiteke. Aurkeztu dituen aurrekontuak ondorengo hauek dira: 181.181,14 euro eraikina berritzeko, eta 26.806,89 euro igogailua jartzeko; guztira 207.988,03 euro. Ondorioz, bidezkoa da kopuru horren % 1a ezartzea.

SEIGARRENA.- Espediente honi amaiera emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da; izan ere, Alkate Andreak 2003ko ekainaren 19an horren gain utzi baitzuen, besteak beste, zehapen-espeditenteei ebazpena emateko ahalmena.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrak bertaratutakozinegotzi guztien adostazunez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Artxabal Promociones, S.L. zigortzea eta 2079,88 euroko isuna ezartzea; hori guztia, Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudiaren 51.1 3) artikulua hausteagatik.

BIGARRENA.- Interesdunari aditzera ematea akordio hau irmoa dela eta beraren kontra ezin duela administrazio-errekurtsorik ezarri, eta soilik Administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakeela bi hilabeteko epearen barruan.

8.- Diziplinazko espedientea.

Espediente honek babestu behar diren datu pertsonalak ditu.

- Gai-zerrendatik kanpo eta aho batez bertan sartzea berretsi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

9.- Udal ordenantza urratzeari dagokion erabakia neurri batean baliogabetzea.

2006ko urriaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen MIKEL IMAZ TORNEDO jn.ari 30 €ko zehapena jartzea, Bide Publikoen Garbiketa eta Eraiketa zein Lurren Erabilera eta Iraupenari Buruzko Eginbeharren Udal Ordenantzaren 26. artikulua urratzeagatik. Artikulu horrek honela dio: “Bide publikoetan ezin da pintadarik egin, egiturazko elementu, hiri-altzari, kaltzada, espaloi, harresi, eta hormetan udal agintaritzaren alde zurrerako baimenik gabe eta ugazabaren baimenik gabe”.

Halaber, erabaki zen arau-hausleari 402€ ordainaraztea, sortutako kalteak konpontzeko.

Ondoren jakin dugu aipatu erabakia hartu aurretik Kontu-hartzaitzatik Imaz jn.ari eskatu zitzaizkion sortutako kalteak konpontzeko gastua ordain zezala, eta borondatezko epean eskatutako kopurua ordaindu ez zuenez premiamendu-probidentzia bideratuta dagoela.

Ondorioz, egokia da erabakiaren alderdi hori baliogabetzea, nahasketa ekiditearren eta gertaera berarengatik bi aldiz kobra ez dakion.

Horiek horrela, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 1. Ataleko 105. artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzi guztien adostasunez, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA.- 2006ko urriaren 16an hartutako erabakiaren 2. atalean Mikel Imaz Tomerori buruz xedatutakoa baliogabetzea.



BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari eta Kontu-hartzaitza Sailari jakinaraztea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:50ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.